

2020ko martxoaren 6a, ostirala

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

1387

29/2020 DEKRETUA, martxoaren 3koa, zeinaren bidez M.^a Teresa Astigarraga Goenaga izendatzen baita Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoan bokal gisa beste mandatu bat egiteko.

2020ko martxoaren 3an amaituko da M.^a Teresa Astigarraga Goenagaren 6 urteko mandatura Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoan bokal gisa, zeinak jardunean jarraituko baitu beste mandatu baterako izendatzen den bokala karguaz jabetzen den arte.

Batzorde horrek aztertu behar dituen gaiei buruz duen kompetentzia profesional egiaztatua kontuan hartuta, egokitzat jotzen da M.^a Teresa Astigarraga Goenagaren mandatura beste aldi baterako berritzea.

Hori guztia dela-eta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 6.3 artikuluan, 7. artikuluan 2. eta 3. paragrafoetan eta 8. artikuluan 3. eta 4. paragrafoetan xedatutakoaren arabera, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2020ko martxoaren 3an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– M.^a Teresa Astigarraga Goenaga izendatzea Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoan bokal gisa beste mandatu bat egiteko.

AZKEN XEDAPENA

Aipatutako bokala mandatu berriaz jabetzen den egunean izango ditu ondorioak izendapen honek.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko martxoaren 3an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.